# GO MOBILITY by MUBIL

**2022ko apirilak 27 – 28**
FICOBA / San Sebastian Region

GO MOBILITY by MUBIL azoka profesionala Europako hegoaldeko eragile publiko eta pribatu nagusien topagunea da, non mugikortasun iraunkorraren inguruko beharrek eta erronkek beren irtenbideak aurkitzen dituzten.




Azoka MUBILek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatu eta sustatzen dute, eta mugikortasun jasangarria garatzeko euskal erakundeak MUBIL poloa, mugikortasun adimendun eta iraunkorreko zentroa, buru dutela bultzatzen ari diren estrategiaren barruan sartzen da.

***Go MOBILITY by MUBIL azokan, tokiko erakundeetako arduradunek irtenbide zehatzak aurkituko dituzte euren udalerrietan mugikortasun iraunkorra arrakastaz ezartzeko.***

## INFORMAZIO PRAKTIKOA

**Datak**
2022ko apirilak
27 eta 28

**Tokia**
FICOBA,
Gipuzkoako
Erakustazoka, Irun

**Ordutegia**
**04/27** 9:30 - 18:00h
**04/28** 9:30 - 17:00h

**SARRERA DOAN TOKIKO ERAKUNDE ORDEZKARIENTZAT**
(politiko eta teknikoak)

Lortu akreditazioa hemen

www.gomobility.eus

## AZOKAKO AKTIBITATEAK

- Erakusketa gunea
- Bilerak kudeatzeko plataforma
- Hitzaldiak
- City Marketplace
- Poster Gunea
- Test Drive

## ZEIN IRTENBIDE IZANGO DIRA IKUSGAI AZOKAN?

Azokara egiten duzun bisitan mugikortasun jasangarriaren balio-kate osoa aurkituko duzu: ibilgailu-fabrikatzaileak, kargatzeko azpiegitura, garraio-sistema adimendunak, energia-hornitzaileak, aholkularitza, softwarea eta IKTak, besteak beste.

***Irtenbide industrialak eta digitalak mugikortasun garbi, irisgarri, seguru eta konektaturako.***

## ZERGATIK ETORRI GO MOBILITYBY MUBIL AZOKARA?

GO MOBILITY by MUBIL azokan m***erkatuan dauden irtenbideak aurkituko dituzu zure udalerria hiriko mugikortasun iraunkorraren eskakizunetara arrakastaz egokitzeko.*** EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legeak eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legeak betebehar hauek dakartzate berekin: administrazioek eskuratzen dituzten ibilgailuak erregai alternatiboen bidez bultzatzea eta hiri-mugikortasun iraunkorreko irtenbideak ezartzea. Era berean, mugikortasun iraunkorrean inbertitzeko sustapen-neurriak eskaintzen dituzte.

Gaian adituak diren enpresen eskutik ikasteaz gain, GO MOBILITY by MUBIL azokan hainbat jarduera interesgarri antolatzen dira. Hau da 2022ko programako zati txiki bat:

### EXHIBITOR'S CORNER (3. pabilioia)

***Erakusketariek euren produktu eta zerbitzuak xehetasunez azalduko dituzte gune honetan***

ERAKUSKETARIEN ZERRENDA

### CITY MARKET PLACE "HIRIEN FOROA" (3. pabilioia)

*Osteguna 2022/04/28 - ordutegia: 11:00-14:00*

***Europako hainbat hirik beren erronkak eta estrategiak aurkeztuko dituzte hiriko mugikortasun jasangarrian.***
Aurkezpenen ondoren, udal arduradunen arteko harreman eta elkarrizketa informaletarako foroa irekiko da.

*Baieztatutako hirietako batzuk: Irun, Donostia, Gasteiz, Iruñea, Bartzelona eta Malaga, besteak beste.*

### HITZALDI EGITARAUA (2. pabilioia)

***Udalerrientzat gomendatutako hitzaldiak:***

***2022/04/27 Asteazkena***

- 11:00-11:30 **Hiri-mugikortasun jasangarrirako trantsizioaren kostuak eta onurak** **Maria Tsavachidis**, EIT Urban Mobility

***2022/04/28 Osteguna***

- 10:00-10:15 **Mugikortasun elektrikorako laguntzak eta pizgarriak Euskadin** **Mónica Díaz,** Euskal Energia Erakundea
- 10:15-10:30 **Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko laguntzak emisio baxuko eremu bat ezartzeko eta hiri eta metropolietako eraldaketa digitala eta jasangarria gauzatzeko. Next Generation funtsak.** **Ángeles Marín Andréu**, MITMA
- 13:00-13:40 **Gure hiri-erronka - Hurbiltasunen iraultza.** **Carlos Moreno,** IAE Paris–Université Panthéon Sorbonne

### TEST DRIVE GUNEA (kanpoaldean)

***Erregai alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuak martxan ikusi eta frogatzeko gunea***

GO MOBILITY by MUBIL

**Doan izena eman!**

www.gomobility.eus

SUSTATZEN DU

MUBIL

LAGUNTZEN DUTE

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa · Etorkizuna Orain / Es futuro · Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco · Euskadi Basque Country · Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía

ANTOLATZEN DUTE

MUBIL · FICOBA